Usurbilgo Udala

2024/09/26

# 2024KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

## BERTARATUAK

**Alkate-Lehendakaria**

Agurtzane Solaberrieta Mesa

**Zinegotziak**

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Josune Urkola Larrarte
Ivan Iriondo Axpe
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Usurbilen, 2024ko irailaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

## 1.- 2024KO UZTAILAREN 24KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko uztailaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## 2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO UZTAILAREN 17TIK IRAILAREN 19RA (2024/817-2024/1053).

Alkatetzak 2024ko uztailaren 17tik irailaren 19ra bitartean (2024/817-2024/1053) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**3.- 2024/880 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2024IDOR0016).**

2024/880 dekretuaren berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**4.- KONTU EMATEA: 2. HIRUHILEKO ORDAINKETEN BATEZBESTEKO EPEA.**

2024ko 2. hiruhileko Ordainketen Batezbesteko Epearen berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**5.- KONTU EMATEA: 2. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.**

2024ko 2. hiruhileko Aurrekontuaren Exekuzioaren berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**6.- KONTU EMATEA: 2024KO AURREKONTUARI KALD009 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

2024ko Aurrekontuko KALD009 Kreditu Aldaketa espedientearen berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**7.- KONTU EMATEA: 2024KO AURREKONTUARI KALD010 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

2024ko Aurrekontuko KALD010 Kreditu Aldaketa espedientearen berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**8.- 2024KO AURREKONTUARI KALD008 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA (2024EKKA0007).**

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu da.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin du.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Antolaketa batzordean honela izan da bozketa:

> Aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta eta Joxe Mari Lizaso.
> Kontrako botoak: Josune Urkola.
> Abstentzioa: Petri Romero.

Hori guztia horrela, 2024ko irailaren 18ko Antolakuntza batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

**E R A B A K I A**

**Lehena**: 2024ko Aurrekontuko KALD008 kreditu aldaketa espedientea onartzea eta 2.700.000 euroko kreditu gehigarriak behin betiko onartzea."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Maialen Iñarra Arregi.

Kontrako botoak: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

Abstentzioa: Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

**9.- DIRUZAIN LANPOSTUA SORTZEKO SAILKAPEN ESKAERA EGITEA EUSKO JAURLARITZARI (2024ID060037).**

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

"**AURREKARIAK**

Usurbilgo Udaleko langileen zerrendan zegoen diruzain lanpostuak ez zituen legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen, besteak beste administrari mailakoa zelako eta legeak gaikuntza nazionaleko lanpostua izan behar duela eta A1 mailakoa zehazten du.

Hori horrela, egoera zuzentzeko pausoak ematen hasi ginen eta lanpostua sortu eta bete ahal izateko sailkatu beharra daukagu. Sailkapenaz arduratzen dena Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko harremanetarako eta administrazio erregistroetako zuzendaritza da.

**AZTERKETA JURIDIKOA**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, toki-korporazio guztietan beharrezkoak diren eta estatu-mailako gaitasuna duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako funtzioak dira idazkaritza lanak, fede publikoa eta nahitaezko lege-aholkularitza barne hartzen dituena, eta ekonomia, finantza eta aurrekontu-kudeaketaren barne kontrola eta fiskalizazioa, eta kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa.

Bestalde, Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 14. artikuluaren arabera, idazkaritza lehen edo bigarren mailan sailkatuta duten toki-korporazioetan, diruzaintza izeneko lanpostu bat egongo da, eta hari dagokio diruzaintzako eta diru-bilketako eginkizunen administrazio-erantzukizuna.

Lanpostu hau Kontu-hartzailetza-Diruzaintza azpieskalan gaikuntza nazionala duten administrazioko funtzionarioentzat gordeta egongo da.

Usurbilgo Udalerriak 2023ko urtarrilaren 1eko datuak hartuta 6.350 biztanle ditu eta 2024an Udalak 13.117.569,45 euroko aurrekontua dauka (2024ko otsailaren 1eko GAO.n argitaratua). 1732/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. Artikuluak, Gaikuntza Nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostuak klasifikatzerakoan, 2. Mailakotzat jotzen ditu, 20.000 eta 5.001 biztanleko udalerriak. Hortaz, Usurbilgo Udalak 2. Mailako klasifikazioa dauka.

Hortaz, 2. Mailako udaletan (Usurbilgo kasua) diruzaintza lanpostua Autonomia Erkidegoak gaikuntza nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostu bezala klasifikatu beharko du.

Diruzaintza lanpostuaren oinarrizko funtzioak 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak bere 5. artikuluan jasotzen dira:

*Artículo 5. Funciones de tesorería y recaudación.*
*1. La función de tesorería comprende:*
*a) La titularidad y dirección del órgano correspondiente de la Entidad Local.*
*b) El manejo y custodia de fondos, valores y efectos de la Entidad Local, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes y, en particular:*

> *1.º La formación de los planes, calendarios y presupuestos de Tesorería, distribuyendo en el tiempo las disponibilidades dinerarias de la Entidad para la puntual satisfacción de sus obligaciones, atendiendo a las prioridades legalmente establecidas, conforme a los acuerdos adoptados por la Corporación, que incluirán información relativa a la previsión de pago a BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO LEGISLACIÓN CON-*

*SOLIDADA Página 12 proveedores de forma que se garantice el cumplimiento del plazo máximo que fija la normativa sobre morosidad.*

*2.º La organización de la custodia de fondos, valores y efectos, de conformidad con las directrices señaladas por la Presidencia.*

*3.º La realización de los cobros y los pagos de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente, el Plan de Disposición de Fondos y las directrices señaladas por la Presidencia, autorizando junto con el ordenador de pagos y el interventor los pagos materiales contra las cuentas bancarias correspondientes.*

*4.º La suscripción de las actas de arqueo.*

*c) La elaboración de los informes que determine la normativa sobre morosidad relativa al cumplimiento de los plazos previstos legalmente para el pago de las obligaciones de cada Entidad Local.*

*d) La dirección de los servicios de gestión financiera de la Entidad Local y la propuesta de concertación o modificación de operaciones de endeudamiento y su gestión de acuerdo con las directrices de los órganos competentes de la Corporación.*

*e) La elaboración y acreditación del periodo medio de pago a proveedores de la Entidad Local, otros datos estadísticos e indicadores de gestión que, en cumplimiento de la legislación sobre transparencia y de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera, gasto público y morosidad, deban ser suministrados a otras administraciones o publicados en la web u otros medios de comunicación de la Entidad, siempre que se refieran a funciones propias de la tesorería.*

*2. La función de gestión y recaudación comprende:*

*a) La jefatura de los servicios de gestión de ingresos y recaudación.*

*b) El impulso y dirección de los procedimientos de gestión y recaudación.*

*c) La autorización de los pliegos de cargo de valores que se entreguen a los recaudadores, agentes ejecutivos y jefes de unidades administrativas de recaudación, así como la entrega y recepción de valores a otros entes públicos colaboradores en la recaudación.*

*d) Dictar la providencia de apremio en los expedientes administrativos de este carácter y, en todo caso, resolver los recursos contra la misma y autorizar la subasta de bienes embargados.*

*e) La tramitación de los expedientes de responsabilidad que procedan en la gestión recaudatoria.*

Guzti hori kontuan izanda, Diruzain lanpostua legearen eskakizunetara egokitu beharra dauka Usurbilgo Udalak.

Gaia 2024ko irailaren 18ko Antolaketa Batzordean eztabaidatu da eta aho batez onartu da, hurrengo bozkak eman dira:

- Aldekoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso, Josune Urkola eta Petri Romero.

2024ko irailaren 18ko Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

2024/09/26

**E R A B A I A**

**LEHENENGOA**: Diruzain lanpostuaren sailkapena eskatzea Eusko Jaurlaritzako Toki administrazioekiko harremanetarako eta administrazio erregistroetako zuzendaritzari.

**BIGARRENA**: Akordio honen berri interesatuei ematea."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

**10.- MOZIOA: COVID-19AREN KUDEAKETAREN EBALUAZIO PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA (2024IMOZ0007).**

Antolaketa batzordearen 2024ko irailaren 18ko bilkuran Bizitza Plataformak aurkeztutako Covid-19aren kudeaketaren ebaluazioaren aldeko mozioa eztabaidatu zen eta aho batez ez onartzea erabaki zen.

Udalbatzarrak mozioa aztertuta, mozioa ez onartzea erabaki du aho batez.

Honela izan da bozketa:

Aurkako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa ez da onartu aho batez.

**11.- MOZIOA: HERRITARREN ETA BIZITZAREN KULTURAREN ALDEKO MOZIOA (2024IMOZ0006).**

Antolaketa batzordearen 2024ko irailaren 18ko bilkuran Bizitza Plataformak aurkeztutako Herritarren eta bizitzaren kulturaren aldeko mozioa eztabaidatu zen eta aho batez ez onartzea erabaki zen.

Udalbatzarrak mozioa aztertuta, mozioa ez onartzea erabaki du aho batez.

Honela izan da bozketa:

Aurkako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa ez da onartu aho batez.

**12.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:05etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**